

# Eguraldiak lagunduta, 'Udaberri giroan' murgilduta igaro zuten asteburua, astigartarrek

Kronika - Erredakzioa 2022-05-30 00:00



'Sagardo abenturazaleak' emanaldia aurkeztu zuten astigartar txikiek.

Giro ederraz gozatu zuten larunbatean Astigarragan, izan ere, makina bat ekitaldi prestatu zituzten egun osorako. Sagardoetxera bertaratu zirenek, *Sagardo abenturazaleak* emanaldia ikusteko parada izan zuten.

Ekintzez betetako asteburuaz gozatzeko tarteak izan dute astigartarrek, izan ere, ekitaldi mordoak egin dira asteburuan zehar, besteak beste, *Udaberri giroan* ekitaldia, Mundaroren 40garren urteurrena, eta kontzertu akustikoa, Erriberan.

Sagardoetxeak eman zion hasiera asteburuari, jardunaldi berezi bat antolatuz udaberria ospatzeko: *Udaberri giroan* izenekoa, hain zuzen ere. Ekitaldi honek, Astigarragako Antzerki Eskola, Astigar Dantza Taldea eta Norberto Almandoz Musika Eskolako ikasleen antzerkia, musika eta dantza emanaldiak uztartu zituen. Eguraldiaren laguntzarekin, giro ederraz gozatu zuten herritarrek Sagardoetxean, eta gainera, *Sagardo abenturazaleak* emanaldia ikusteko aukera ere izan zuten, eta noski, sagardoaren historia eta kultura gehiago ezagutzeko aitzakia ederra izan zen.

*Udaberri giroan* ekitaldia ez zen goizeko ekintza bakarra izan, Mundarrok 40garren urteurrena ospatu baitzuen Zarkumendegin. Futbolin txapelketarekin hasi zuten eguna, eta jarraian kale futbolari eman zioten hasiera. Eguerdian, 40garren urteurrenako zozketa ere egin zuten, eta goizari amaiera emateko, puzgarri eder batzuk Zarkumendegi apaindu zuten, eta noski, etxeko txikiek ederki pasa zuten.

## Kontzertu akustikoak, Erriberan

Ekitaldiz gain, astigartar askok, *Elenitaka*, *Apalatxe* eta *Paradoxus Luporum* taldeek eskainitako kontzertu akustikoak entzuteko aukera izan zuten. Gazteria sailak antolatutako kontzertua izan zen, eta gustura egon ziren astigartarrak musikaz gozaten.



'Paradoxus Luporum' taldeak Erribera bisitatu zuen, larunbatean.




Herritar ugari bertaratu ziren Sagardoetxera.

[Gizartea Astigarraga](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaituz KronikaKide!

Erantzun 



## Ikusienak



### [Sekulako festarekin ospatu zuten mende erdia 1972koek!](#)

Kronika - Erredakzioa  
ira 26, 00:00 [Hernani](#)



### [Mondragon Unibertsitateak, Galarretako campuseko ingenieritzako 120 ikasle berrirekin hasi du ikasturtea](#)

Kronika - Erredakzioa  
ira 27, 00:00 [Hernani](#)



### [Horten maitea](#)

Juanra Jodar  
Arruiz ira 26, 00:00  
[Hernani](#)



### [Karabelgo Jaiak, larunbata](#)

[Iruditan](#)  
Kronika - Erredakzioa  
ira 24 [Hernani](#)



### [Atzo hasi zen epaiketa hiru gizonen aurka, 2020an beste gizon bat hiltzen saiatzeagatik](#)

Kronika - Erredakzioa  
ira 27, 08:55 [Hernani](#)



### [Gudari eguna dela eta, ekitaldia antolatu du Sortuk, gaurko](#)

Kronika - Erredakzioa  
ira 27, 00:00 [Hernani](#)

## Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkarte](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]@kronika.eus](mailto:kronika[ABILDUA]@kronika.eus)



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



## Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)   [AIKOR](#)   [AIURRI](#)   [ALEA](#)   [AMEZTI](#)   [ANBOTO](#)   [ANTXETA](#)   [ATARIA](#)   [BALEIKE](#)   [BARREN](#)   [BEGITU](#)  
[DEUSTUALDEA PREST](#)   [ERLO TELEBISTA](#)   [ERRAN](#)   [EUSKALERRIA IRRATIA](#)   [GEURIA](#)   [GOIENA](#)   [GOIERRI TELEBISTA](#)   [GUAIXE](#)   [HIRUKA](#)  
[KARKARA](#)   [KRONIKA](#)   [MAILOPE](#)   [MAXIXATZEN](#)   [NOAUA](#)   [OIZMENDI TELEBISTA](#)   [PLAENTXIA](#)   [TXINTXARRI](#)   [URIOLA](#)   [UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#)   [Plazanbazan](#)   [Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)